

EKITALDIAK-EVENTOS / SAGASTIA-MANZANAL / SIDRA-SAG

Bizkaiko Txakolin eta Sagardoaren XIII. Jardunaldi Enologikoak.

SAGARDOAREN LURRALDEA - 14/05/2013 · 8:08

Sin comentarios



Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak **Bizkaiko Txakolin eta Sagardoaren XIII. Jardunaldi Enologikoak** egingo ditu **Zallako Frutagintza Estazioan**, maiatzaren 16an eta 18an.

Bizkaiko Txakolin eta Sagardoaren XIII. Jardunaldi Enologikoen bidez (hauei zuzenduta daude: Bizkaiko Txakolinaren Jatorrizko Deitura eta Bizkaiko Sagardoa markako upeltegi eta ekoizleak, Bizkaiko Txakolinaren Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arautzaileko Dastatze Batzordea, prentsa espezializatua eta sukaldaritza, ostalaritza eta beste erakunde batzuetako ordezkariak), 2011ko eta 2012ko uztekin eginiko lan esperimentalen eta haien emaitzen berri emango da. Lan horiek Bizkaiko txakolinaren bitikultura eta enologiaren, **sagardo-sagarraren** eta **sagardo naturalaren**

arlokoak izan dira, eta Zallako Frutagintza Estazioan dira. Maiatzaren 16an eta (osteguna) eta 18an (larunbata) izango diren jardunaldiotan, ekoizpen-prozesuetan erabilitako barietate eta teknikekin lortutako emaitzak alderatu ahal izango dira, Bizkaiko txakolin eta sagardoan kalitate handiena lortzeko.

Egitaraua:

- **Maiatzaren 16an (osteguna)**, 11:00etan, Bizkaiko Txakolinaren Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arautzaileko Dastatze Batzordearen dasta-saioa. Zallako Frutagintza Estazioko teknikariek zenbait teknika eta prozesu erabiltuta lortutako txakolin esperimental berriak aurkeztuko dizkiote batzordeari.

- **Maiatzaren 18an (larunbata)**, 11:00etan, ekoizleak eta upategiak, prentsa espezializatua, banatzaileak eta ostalaritzako langileak. Teknologia transferitzeko jardunaldi bat egingo da Bizkaiko Txakolinaren Jatorrizko Deiturako upeltegi eta ekoizleentzat eta Euskal Sagardoaren kalitate-labeleko sagardo naturalaren ekoizleentzat. Arlo hauetako langileentzat ere bada jardunaldia: prentsa espezializatua, sommelierak, ostalaritzak, enotekak, banaketa-enpresak eta jatetxeak.

Iturria: www.bizkaia.net

Tags: enología, Eusko label, frutagintza, fruticultura, jarduraldia, jornada, manzano de sidra, sagardo sagarra, sagardoa, Sidra, Zalla

Anterior post

Celebración Día Internacional de los Museos en Sagardoetxea. Museoen Nazioarteko Egunaren ospakizuna Sagardoetxea Museon.

Siguiente post

19 de mayo, Sagardo Eguna en Usurbil. Maiatzak 19, Sagardo Eguna Usurbilen.

Tu comentario / Zure komentarioa

Sagardoaren Lurraldea



Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 559 575
info@sagardoarenlurraldea.com
www.sagardoarenlurraldea.com

RSS Feed
Twitter
Facebook

Buscar / Bilatu

Categorías

Azokak-Ferias
Besteak-Otros
Ekitaldiak-Eventos
Esperientziak-Experiencias
Formazioa-Formación
Gastronomía-Gastronomía
Historia-Historia
Kultura-Cultura
Lehiaketak-Concursos
Museos-Museoak
Sagarra-Manzana
Sagastia-Manzanal
Sidra-Sagardoa
Sidrerías-Sagardotegiak
Turismoa-Turismo

Post Recientes



"Baserri munduko memoria" sagastiko lan ezberdinen eskutik Sagardoetxean.



Lezon Sagardo Eguna ospatuko da larunbat honetan.



Maiatzak 19, Sagardo Eguna Usurbilen.



Bizkaiko Txakolin eta Sagardoaren XIII. Jardunaldi Enologikoak.